# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 3887

*EBAZPENA, 2023ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez epe berri bat irekitzen baita dirulaguntzak eskatzeko, eta argitara ematen baitira haiek finantzatzera bideratuko diren baliabide ekonomikoak, honako deialdi honen babesean: Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen konpetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran hartutako Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen konpetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia onetsi zuen, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdia 2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 262. zenbakian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez.

Deialdi horretan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 5.334.915 eurokoa izan zen, eta zenbateko hori Estatuak transferitu zuen, deialdia gauzatzeko izaera finalistarekin, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean integratutako proiektu gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez.

Deialdiaren 1.2 artikuluan ezartzen denez, baldin eta 2022. eta 2023. urteetan Euskal Autonomia Erkidegoari Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen eta helburu bera duten funts berriak transferitzen bazaizkio, eta funtsek laguntza horiekin lotutako ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitara emango da kredituen zenbatekoa, eta deialdi honetan jasotako oinarri arautzaileak aplikatuta erantzun beharreko eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko da. Halaber, deialdiaren 3.5 artikuluan xedatzen denez, kasu horretan, kreditu berriekin diruz lagunduko diren prestakuntza-planak gauzatzeko epea ezarriko da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez (2022ko abenduaren 30eko EHAA), dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epe berri bat gaitzen da, eta dirulaguntza horiek finantzatzeko esleitutako baliabide ekonomikoen berri ematen da, deialdi honen babesean: Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen konpetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Horrenbestez, beste adjudikazio-prozedura bat egin da, ebazpen honetan identifikatutako 4.182.884 euroko kredituaren kargura; zenbateko horretatik, 1.670.529 euro Estatuak 2022an programa hori gauzatzeko transferitutako kreditutik datoz, eta 2.512.355 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez argi-

taratutako deialdiaren soberakinetik. Eskabideak aurkezteko epe berria behin betiko ebazteko prozedura amaitu ondoren, 2.936.964 euroko soberakina geratu da.

Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialaren LXXXIII. Bileran (2023ko apirilaren 28koa), Estatuko Aurrekontu Orokorren lan-arloko funtsen banaketa onartu zen (funts horiek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura finantzatzen dira), autonomia-erkidegoek 2023an kudea ditzaten. Euskal Autonomia Erkidegoari 1.616.641 euro esleitu zaizkio, langabeen gaitasun digitalak hobetzeko programaren laguntzak finantzatzeko, ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko. Hartara, 8.622.085 euro dira, guztira, programaren esparruan Euskadira transferitutako funtsak.

Bestalde, deialdiaren 3. artikuluan adierazten da diruz lagundu ahal izango direla eranskinean jasotako konpetentzia digitalak eskuratzearekin lotutako espezialitateei buruzko prestakuntza-ekintzak dituzten prestakuntza-planak eta, halaber, prestakuntza-espezialitate berrien programazioa eskatu ahal izango dela (prestakuntza-entitateek proposatu behar dute horiei alta ematea Espezialitateen Katalogoan). Espezialitateen Katalogoak etengabe biltzen ditu prestakuntza-espezialitateak, eta, beraz, eskabideak aurkezteko hasierako epea itxi ondoren, espezialitate berriei alta eman diete Enplegurako Lanbide Heziketaren sisteman parte hartzen duten prestakuntza-erakundeek eta Enplegu Zerbitzu Publikoek. Espezialitate horiek eremu honetan eman daitezke, eta, hortaz, deialdiaren eranskinean sartu behar dira.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluan ezartzen denez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, dirulaguntzen deialdiez gain, interesdunentzat garrantzitsua den eta oro har eragiten dien edozein egintza.

Horrenbestez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea, deialdi honen babesean: Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen konpetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran hartutako Erabakiaren bidez onetsi da deialdia (2021eko abenduaren 31ko EHAA, 262 zk.).

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epe berria, eta 2023ko irailaren 11n amaituko da.

Eskabideak elektronikoki izapidetuko dira, deialdiaren 6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Honako helbide honetan eskuratu daiteke administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituena: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2023/mcd2023/web01-tramite/eu/.

Bigarrena.– Argitara ematea 4.553.605 euroko aurrekontu-kreditua bideratuko dela laguntzak finantzatzera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren kargura, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta.

Zenbateko hori hiru lurralde historikoen artean banatuko da, deialdiaren 1.4 artikuluan hasierako krediturako aurreikusitako ehuneko berberen arabera.

Hirugarrena.– Erreferentziako deialdiaren eranskina argitaratzea, egungo zuzkidura ekonomikoarekin diruz lagundu daitezkeen prestakuntza-espezialitateekin eguneratuta.

Laugarrena.– 2024ko abenduaren 31n amaituko da kreditu honen kargura diruz lagundutako prestakuntza-planak gauzatzeko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 27a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

ESPEZIALITATE PROGRAMAGARRIAK

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| ADG | ADGD07EXP | Sare sozialen aplikazioa pertsonen kudeaketan: giza baliabideak 2.0 | 3 | 30 |
| ADG | ADGD11 | Blockchain: empresako aplikazioak | 1 | 30 |
| ADG | ADGD116PO | Erosketen kudeaketa informatizatua | 2 | 40 |
| ADG | ADGD336PO | Talentua eta enpresa digitala | 2 | 30 |
| ADG | ADGD339PO | Design Thinking eta Lean Startup | 2 | 30 |
| ADG | ADGD340PO | Lean It oinarriak | 2 | 20 |
| ADG | ADGD344PO | Microsoft Project hastapenak | 2 | 10 |
| ADG | ADGD353PO | Publizitate-komunikazioko enpresetako eraldaketa digitala – presentziala | 2 | 40 |
| ADG | ADGD355PO | Aro digitaleko estrategia eta negozio-eredu berriak | 2 | 10 |
| ADG | ADGD56 | Eraldaketa digitalerako trebetasunak | 2 | 40 |
| ADG | ADGD82 | Ingurunea eta estrategia eraldaketa digitalean | 2 | 20 |
| ADG | ADGG001PO | Access. Maila aurreratua | 2 | 40 |
| ADG | ADGG007PO | SPSS Aplikazioa eta estatistika-analisia | 2 | 30 |
| ADG | ADGG020PO | Excel aurreratua | 2 | 20 |
| ADG | ADGG022PO | Faktura digitala | 2 | 30 |
| ADG | ADGG026PO | Informazioaren eta komunikazioaren teknologien oinarriak | 2 | 30 |
| ADG | ADGG031PO | Salmenten kudeaketa informatizatua | 2 | 40 |
| ADG | ADGG037PO | Microdoft Sharepoint Foundation 2011 inplementatzea eta administratzea | 2 | 10 |
| ADG | ADGG038PO | Internet aurreratua | 2 | 40 |
| ADG | ADGG039PO | Internet eta web-orrien diseinuaren oinarriak | 2 | 30 |
| ADG | ADGG040PO | Internet, sare sozialak eta gailu digitalak | 2 | 30 |
| ADG | ADGG042PO | Informazioaren teknologiaren erabilera enpresan | 2 | 30 |
| ADG | ADGG076PO | SPSS: Aplikazioa eta estatistika-analisa | 2 | 30 |
| ADG | ADGG079PO | Trados, Itzulpen-programa | 2 | 40 |
| ADG | ADGG081PO | Web 2.0 eta sare sozialen oinarriak | 2 | 10 |
| ADG | ADGG084PO | Word. Maila aurreratua | 2 | 40 |
| ADG | ADGG088PO | Informatika-tresna baliagarriak kooperatibentzat | 2 | 20 |
| ADG | ADGG103PO | Interneten informazioa bilatzea | 2 | 30 |
| ADG | ADGG105PO | Gaitasun digitalak enpresan | 2 | 25 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| ADG | ADGG106PO | Gaitasun digitalak eraikuntzan | 2 | 25 |
| ADG | ADGG108PO | Bezeroa helburu duen komunikazio digitala | 2 | 20 |
| ADG | ADGG110PO | Ezagutzaren kudeaketa enpresa digitaletan | 2 | 30 |
| ADG | ADGG12 | Gidoia, edukia eta publizitatea sare sozialetan | 2 | 20 |
| ARG | ARGA001PO | Autoedizioa, diseinua eta maketazioa | 2 | 40 |
| ARG | ARGG004PO | Autoedizioa: diseinu grafikoa | 2 | 40 |
| ARG | ARGG007PO | Ordenagailuz lagundutako diseinua, Catia erabiliz (oinarrizkoa) | 2 | 30 |
| ARG | ARGG008PO | Irudien edizioa eta multimedia tratamendua | 2 | 30 |
| ARG | ARGG01 | Diseinu-proiektuen inprimaketa | 3 | 30 |
| ARG | ARGG013PO | Photoshop aurreratua | 2 | 40 |
| ARG | ARGG016PO | Maketazio digitala Quarkpress programarekin | 2 | 40 |
| ARG | ARGG017PO | Irudiak digitalizatzea | 2 | 40 |
| ARG | ARGG023PO | 3D digitalizazioa, alderantzizko ingeniaritza | 2 | 24 |
| ARG | ARGG024PO | Ordenagailuz lagundutako diseinua 3D AutoCAD programarekin | 2 | 40 |
| ARG | ARGG032PO | Ordenagailuz lagundutako diseinua 2D AutoCAD programarekin | 2 | 40 |
| ARG | ARGG033PO | Ordenagailuz lagundutako diseinua Catia programarekin | 2 | 40 |
| COM | COML009PO | Floten logistika eta sistema telematikoak | 2 | 40 |
| COM | COML010PO | Stock-politika eta berorren kudeaketa informatizatua | 2 | 40 |
| COM | COML02 | Eraldaketa logistikoa 4.0 industriaren ingurunean | 3 | 25 |
| COM | COML05 | Logistika integrala eta alderantzizko logistika enpresa baten hornidura-katean | 3 | 30 |
| COM | COML07 | Garraio-sektore desberdinetan ibilbideak planifikatzeko sistemak | 3 | 30 |
| COM | COML21 | Logistika-enpresa baten kudeaketa digitalizatzea (2021) | 3 | 30 |
| COM | COMM001PO | Web-analisia marketinaren emaitzak neurtzeko | 2 | 30 |
| COM | COMM01 | Zibersegurtasuna eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO), merkataritza elektronikoari aplikatuta | 3 | 40 |
| COM | COMM025PO | Interneteko marketin-planen oinarriak | 2 | 30 |
| COM | COMM030PO | Online marketina aholkularitzaren sektorean | 2 | 30 |
| COM | COMM031PO | Online marketina: webguneen diseinua eta sustapena | 2 | 30 |
| COM | COMM045PO | Oinarrizko marketina komunikabide sozialetan | 2 | 25 |
| COM | COMM046PO | Marketin-plan zuzena eta bezeroen fidelizazioa | 2 | 25 |
| COM | COMM07 | "Business-to-business" (B2B) merkataritzako transakzioetan | 3 | 30 |
| COM | COMM091PO | Marketina komunikabide sozialetan eta online ospearen kudeaketa | 2 | 40 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| COM | COMM094PO | Bezeroak e-mail marketinaren bitartez erakartzea, Mailchimp erabiltzea | 2 | 10 |
| COM | COMM095PO | Customer experience | 2 | 30 |
| COM | COMM097PO | Estrategia digitalen diseinua | 2 | 30 |
| COM | COMM099PO | Salmenta omnikanaleko estrategiak eta bezero-esperientzia | 2 | 30 |
| COM | COMM103PO | Automatizazioko marketina | 2 | 30 |
| COM | COMM106PO | Aro digitaleko hiperhazkunde-ereduak | 2 | 30 |
| COM | COMM109PO | Product Design | 2 | 30 |
| COM | COMM113PO | Value Proposition Design | 2 | 30 |
| COM | COMM116PO | Kexak eta erreklamazioak bitarteko interaktibo edo digitalen bidez kudeatzea | 2 | 20 |
| COM | COMM12 | Bidaiariaren leialtasuna lortzeko teknikak: marketina eta eraldaketa digitala | 2 | 30 |
| COM | COMM19 | Telemarketina | 1 | 40 |
| COM | COMT071PO | Teknologiaren erabilera salmentak egiteko eta bezeroei arreta emateko | 2 | 20 |
| COM | COMT105PO | Online salmenta | 2 | 30 |
| COM | COMT114PO | B2B aro digitalean | 2 | 30 |
| COM | COMT116PO | B2B Estrategiak eta salmenta konplexua aro digitalean | 2 | 30 |
| COM | COMT117PO | Mobile Business Strategy | 2 | 30 |
| COM | COMT118PO | Social Selling | 2 | 30 |
| COM | COMT121PO | Bitarteko interaktibo edo digitalen bidezko produktuen salmenta:dokumentazioa | 2 | 30 |
| COM | COMT13 | Enpresen erronkak: bezeroekiko interakzio-modu berria eta kudeaketaren digitalizazioa | 2 | 12 |
| ELE | ELES001PO | Domotikarako KNX protokoloa | 2 | 40 |
| EOC | EOCO080PO | ArcGIS 10.x/ ArcGIS Pro - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| EOC | EOCO089PO | QGIS eta GRASS - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| EOC | EOCO090PO | QGIS eta GRASS - Maila aurreratua | 2 | 40 |
| EOC | EOCO092PO | Ingurumenari aplikatutako QGIS espezialista | 2 | 40 |
| EOC | EOCO094PO | Web-mapen aplikazioak sortzea: API JavaScript 4.x eta ArcGIS Server | 2 | 40 |
| EOC | EOCO110PO | REVIT - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| EOC | EOCO117PO | Python ArcGIS bidez | 2 | 40 |
| EOC | EOCO118PO | Python ArcGIS bidez - Aurreratua | 2 | 40 |
| EOC | EOCO125PO | AutoCAD Map 3D, proiektuen ingurumen-integraziora aplikatua | 2 | 40 |
| FCO | FCOI001PO | SPSS programaren erabilera, estatistika-analisiak egitea | 2 | 30 |
| FCO | FCOI01 | Alfabetizazio informatikoa: Internet | 2 | 10 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| FCO | FCOI02 | Alfabetizazio informatikoa: informatika eta Internet | 1 | 25 |
| FCO | FCOI08 | Ekintzailetzarako oinarrizko konpetentzia digitalen hastapena | 1 | 40 |
| FCO | FCOI10 | Informazio digitala bilatzea eta kudeatzea – oinarrizko maila | 1 | 40 |
| FCO | FCOI11 | Tarteko mailako informazio digitalaren bilaketa eta kudeaketa | 2 | 40 |
| FCO | FCOI12 | Maila aurreratuko informazio digitalaren azterketa | 3 | 40 |
| FCO | FCOI13 | Informatikarako eta oinarrizko gaitasun digitaletarako hastapenak | 1 | 40 |
| FCO | FCOI14 | Informatikaren hastapena eta enplegurako oinarrizko gaitasun digitalak | 1 | 40 |
| FCO | FCOI15 | Eduki digitalak sortzea. Oinarrizko maila | 1 | 40 |
| FCO | FCOI16 | Eduki digitalak sortzea eta programazioa. Tarteko maila | 2 | 40 |
| FCO | FCOI17 | Eduki digitalak sortzea eta programazioa. Maila aurreratua | 3 | 40 |
| FCO | FCOI18 | Tresna digitalekiko komunikazioa eta lankidetza. Oinarrizko maila | 1 | 40 |
| FCO | FCOI19 | Tresna digitalekiko komunikazioa eta lankidetza. Tarteko maila | 2 | 40 |
| FCO | FCOI20 | Tresna digitalekiko komunikazioa eta lankidetza. Maila aurreratua | 3 | 40 |
| FCO | FCOI21 | Ingurune digitalean arazoak konpontzea. Maila oinarrizkoa | 1 | 40 |
| FCO | FCOI22 | Ingurune digitalean arazoak konpontzea. Tarteko maila | 2 | 40 |
| FCO | FCOI23 | Ingurune digitalean arazoak konpontzea. Maila aurreratua | 3 | 40 |
| FCO | FCOI24 | Segurtasuna eta gizalegea ingurune digitalean. Oinarrizko maila | 1 | 40 |
| FCO | FCOI25 | Segurtasuna eta gizalegea ingurune digitalean. Tarteko maila. | 2 | 40 |
| FCO | FCOI26 | Segurtasuna eta gizalegea ingurune digitalean. Maila aurreratua | 3 | 40 |
| FCO | FCOI27 | Excel kalkulu-orria aplikatzea. Hasierako maila | 1 | 40 |
| FCO | FCOI28 | Excel kalkulu-orria aplikatzea. Maila aurreratua | 2 | 40 |
| FCO | FCOV011PO | Datuak babesteko erregelamendua | 2 | 10 |
| FME | FMEM010PO | Hezkuntzarako robotika eta programazioa | 2 | 30 |
| FME | FMEM012PO | Solid Edge, diseinu parametrikoa | 2 | 40 |
| FME | FMEM06 | Hasierako mailako Fanuc beso errobotikoaren programazioa | 2 | 40 |
| FME | FMEM07 | Maila aurreratuko Fanuc beso errobotikoaren programazioa | 3 | 40 |
| IFC | IFCD002PO | BDD eta TDD kodeen bidezko analisia | 2 | 10 |
| IFC | IFCD0049 | Webgune eleaniztunak editatzea eta sortzea | 2 | 40 |
| IFC | IFCD0051 | Android bidezko aplikazioen oinarrizko mailako garapena | 2 | 40 |
| IFC | IFCD0052 | Android bidezko aplikazioen garapena maila aurreratuan | 2 | 40 |
| IFC | IFCD0053 | Prozesu industrialen simulazioa | 2 | 40 |
| IFC | IFCD005PO | Analysis & Design DB2: Datu-base erlazionalak diseinatzea | 2 | 15 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IFC | IFCD0061 | Cloudera. Hadoop eta Big Datarako sarrera | 2 | 40 |
| IFC | IFCD0063 | Ikaskuntza automatikoaren eta adimen artifizialaren aplikazio industrialak | 2 | 40 |
| IFC | IFCD0068 | Diseinu grafikoa eta ilustrazioa Adobe Illustrator-ekin | 2 | 40 |
| IFC | IFCD006PO | JAVA aplikazioak (J2EE) | 2 | 30 |
| IFC | IFCD010PO | Web-orrien sorkuntzaren hastapenak | 2 | 40 |
| IFC | IFCD013PO | Data Warehouse Business Intelligence | 2 | 40 |
| IFC | IFCD016PO | Aplikazioak garatzea JAVA Server Face erabilita | 2 | 20 |
| IFC | IFCD018PO | Web-aplikazioak garatzea ASP.NET teknologia erabilita | 2 | 40 |
| IFC | IFCD019PO | Softwarearen diseinu teknikoa eta funtzionala | 2 | 10 |
| IFC | IFCD020PO | Web-diseinua Flash Animaciones I erabilita | 2 | 40 |
| IFC | IFCD021PO | Web-diseinua Flash Animaciones erabilita | 2 | 40 |
| IFC | IFCD024PO | MAVEN-en bidez kudeatzea JAVA proiektuak | 2 | 15 |
| IFC | IFCD028PO | Eduki digitalak sortzea Ipad-etarako Ibooks Author erabilita | 2 | 16 |
| IFC | IFCD031PO | Web zerbitzuak garatzea | 2 | 30 |
| IFC | IFCD032PO | Jakarta Struts eta JDBC_BI web-garapenetarako | 2 | 40 |
| IFC | IFCD035PO | MS Exchange Server mezularitza: plangintza eta diseinua | 2 | 25 |
| IFC | IFCD039PO | Web-orri dinamikoak sortzea, programatzea eta diseinatzea | 2 | 25 |
| IFC | IFCD040PO | J2EE garapen-plataforma | 2 | 10 |
| IFC | IFCD042PO | Algoritmoen programazioa Excelen bidez | 2 | 30 |
| IFC | IFCD046PO | SAP Bussiness Intelligence | 2 | 24 |
| IFC | IFCD048PO | Software-proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologia: SCRUM | 2 | 16 |
| IFC | IFCD050PO | SPRING, JAVA aplikazioak garatzeko | 2 | 20 |
| IFC | IFCD053PO | Angular 2 | 2 | 30 |
| IFC | IFCD054PO | Ansible | 2 | 20 |
| IFC | IFCD055PO | Sortu zure aplikazioak: app inventor (Google) | 2 | 40 |
| IFC | IFCD056PO | Web garapen aurreratua: Angularjs (JJD 190) | 2 | 24 |
| IFC | IFCD057PO | Spring eta Hibernate bidez aplikazioak garatzea | 2 | 30 |
| IFC | IFCD058PO | Aplikazio hibridoak garatzea Ionic Framework bidez | 2 | 24 |
| IFC | IFCD060PO | Garapen segurua | 2 | 25 |
| IFC | IFCD061PO | Enterprise Architect | 2 | 20 |
| IFC | IFCD063PO | Angular hastapenak. JS | 2 | 24 |
| IFC | IFCD064PO | JAVA programazioaren hastapenak | 2 | 20 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IFC | IFCD065PO | JAVA aurreratua | 2 | 30 |
| IFC | IFCD066PO | JOOMLA, Web edukiak kudeatzeko sistema | 2 | 30 |
| IFC | IFCD067PO | Windows Server hastapenak | 2 | 25 |
| IFC | IFCD068PO | ASP.NET Programazioa | 2 | 40 |
| IFC | IFCD069PO | Scrum | 2 | 20 |
| IFC | IFCD070PO | Linux sistema eragilea | 2 | 30 |
| IFC | IFCD071PO | Unity aurreratua | 2 | 24 |
| IFC | IFCD075PO | HTML5, GIS garatzaileentzat | 2 | 40 |
| IFC | IFCD076PO | Google Maps API: programazioaren hastapenak | 2 | 40 |
| IFC | IFCD078PO | 3D eskanerrak eta 3D softwareak | 2 | 20 |
| IFC | IFCD081PO | Gauzen internet (IOT) | 2 | 22 |
| IFC | IFCD082PO | FDM inprimagailuaz oinarrizko eragiketak egitea | 2 | 40 |
| IFC | IFCD085PO | Fabrikazio aditiboko teknologiak: FDM | 2 | 10 |
| IFC | IFCD086PO | 4.0 industriako prozesuen simulazioa | 2 | 5 |
| IFC | IFCD090PO | Web-orriak egitea Joomla erabilita | 2 | 25 |
| IFC | IFCD109 | Sandbox-ek ingurune berritzaileak sortzea | 1 | 30 |
| IFC | IFCD110 | Zerbitzuak hodeian (Cloud) AWS erabilita | 3 | 40 |
| IFC | IFCD69 | Responsive web design | 3 | 20 |
| IFC | IFCD79 | Objektuetara bideratutako aplikazioen garapenerako sarrera (Microsoft) | 2 | 30 |
| IFC | IFCD80 | Inventor 3D oinarrizkoa | 2 | 30 |
| IFC | IFCD86 | Wordpress egituren itzulpena | 2 | 40 |
| IFC | IFCD88 | Google Analytics eta Google Metatags | 3 | 30 |
| IFC | IFCM001PO | Web-analitika | 2 | 15 |
| IFC | IFCM002PO | Cloud Computing | 2 | 30 |
| IFC | IFCM004PO | Interneteko segurtasun-espezialista | 2 | 30 |
| IFC | IFCM007PO | Google eta horren aplikazioak | 2 | 30 |
| IFC | IFCM008PO | Google Adwords eta horren publizitate-aplikazioak | 2 | 30 |
| IFC | IFCM012PO | Sinadura digitala | 2 | 20 |
| IFC | IFCM012PO | Sinadura digitala | 2 | 20 |
| IFC | IFCM016PO | Telekomunikazioen gaineko araubidea | 2 | 30 |
| IFC | IFCM02 | Cisco systems sareen administratzailea, CCNA 2. modulua: Routing eta Switching oinarriak sareetan | 2 | 30 |
| IFC | IFCM022PO | Datuak transmititzeko sistemak | 2 | 40 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IFC | IFCM024PO | LAN sareen diseinua | 2 | 40 |
| IFC | IFCM03 | Cisco systems sareen administratzailea, CCNA 3. modulua: sareen eskalatzea | 3 | 40 |
| IFC | IFCM030PO | Telefonoguneak eta terminalak | 2 | 30 |
| IFC | IFCM031PO | Softwarearen itzulpen espezializatua | 2 | 40 |
| IFC | IFCM036PO | HTML 5 eta CSS 3 | 2 | 40 |
| IFC | IFCM037PO | Google tresnak | 2 | 30 |
| IFC | IFCM038PO | Web erabilgarritasuna | 2 | 15 |
| IFC | IFCM041PO | Hodeiko konexioen konfigurazioa eta programazioa | 2 | 20 |
| IFC | IFCT0020 | IOT (gauzen internet) eta sistema ziberfisikoak 4.0 industrian | 2 | 40 |
| IFC | IFCT0022 | Big Data | 1 | 40 |
| IFC | IFCT0035 | Autocad 3D | 2 | 40 |
| IFC | IFCT004PO | Web-irisgarritasuna | 2 | 10 |
| IFC | IFCT005PO | Datu-baseen administrazioa Oracle-ren bidez | 2 | 40 |
| IFC | IFCT006PO | Citrix Xenapp-en administrazioa | 2 | 40 |
| IFC | IFCT009PO | Windows Server 2008-ren administrazioa eta mantentzea | 2 | 30 |
| IFC | IFCT01 | Big Dataren eta datuen ezaugarri zientifikoen analista | 4 | 40 |
| IFC | IFCT010PO | UML bidezko analisia (modelizazioa) | 2 | 40 |
| IFC | IFCT013PO | AJAX, web-zerbitzarietako idazmahai-aplikazioetarako | 2 | 40 |
| IFC | IFCT015PO | ARCGIS (geografia-informaziorako sistemak) | 2 | 16 |
| IFC | IFCT026PO | Hodei-konputazioa (Azure, Linux) | 2 | 30 |
| IFC | IFCT028PO | Komunikazio digitala eta Networking-a interneten | 2 | 30 |
| IFC | IFCT032PO | Data Mining Business Intelligence | 2 | 40 |
| IFC | IFCT033PO | Web-elementuak garatzea JAVA EE5 plataformarekin | 2 | 40 |
| IFC | IFCT036PO | Bideo-jokoen garapena HTML5 baliatuta | 2 | 40 |
| IFC | IFCT041PO | Zerbitzuaren diseinua | 2 | 20 |
| IFC | IFCT051PO | Zerbitzuen kudeaketaren oinarria, ITIL erabilita | 2 | 25 |
| IFC | IFCT053PO | Web-kudeaketarako tresnak (edukien kudeaketa) | 2 | 40 |
| IFC | IFCT056PO | Ordenagailuak instalatzea eta horien mantentze-lanak egitea | 2 | 30 |
| IFC | IFCT058PO | AJAX: sarrera | 2 | 25 |
| IFC | IFCT059PO | C++ programazioa: sarrera. C aurreratua | 2 | 24 |
| IFC | IFCT060PO | 3D inprimaketa-teknologiarako sarrera | 2 | 40 |
| IFC | IFCT062PO | ISTQB Certified Tester Advanced Analyst: preparation course | 2 | 24 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IFC | IFCT063PO | ITIL Essential | 2 | 24 |
| IFC | IFCT064PO | ITL Foundation | 2 | 20 |
| IFC | IFCT068PO | Metodologia arinak softarea mantentzeko proiektuetarako | 2 | 25 |
| IFC | IFCT074PO | Oracle Database 10G | 2 | 30 |
| IFC | IFCT080PO | PHP eta MYSQL bidezko programazioa | 2 | 40 |
| IFC | IFCT082PO | Programazioa .NET plataforman, Visual Basic erabilita | 2 | 40 |
| IFC | IFCT084PO | Excel makroen programazioa Visual Basic erabilita | 2 | 20 |
| IFC | IFCT093PO | Visual Basic.NET programazioa | 2 | 18 |
| IFC | IFCT094PO | Scratch lengoaiarekin programatzea | 2 | 30 |
| IFC | IFCT095PO | Python eta Django | 2 | 40 |
| IFC | IFCT105 | Business Intelligence zure negozioari aplikatuta | 3 | 40 |
| IFC | IFCT105PO | GNU_LINUX sistema eragilea: Ubuntu | 2 | 30 |
| IFC | IFCT106PO | Ekipoen babesa sarean | 2 | 10 |
| IFC | IFCT109 | Zibersegurtasunaren kudeaketa | 2 | 20 |
| IFC | IFCT109PO | Birtualizazio-softwarea eta bere aplikazioak: Xen monitorea, Linux, Vmware, Virtual PC-n | 2 | 20 |
| IFC | IFCT110PO | Segurtasun-kopiak SQL Server 2008-n | 2 | 25 |
| IFC | IFCT114PO | Linux | 2 | 40 |
| IFC | IFCT115 | Gazteen segurtasuna eta pribatutasuna sarean | 2 | 20 |
| IFC | IFCT118PO | Idazmahaia birtualizatzea Microsoft aplikazioak erabilita | 2 | 25 |
| IFC | IFCT120 | Big Data. Datuen analisia | 3 | 40 |
| IFC | IFCT120PO | Zerbitzariak bitualizatzea System Center erabilita | 2 | 25 |
| IFC | IFCT128PO | Big Data | 2 | 40 |
| IFC | IFCT129PO | Amazon web services-eko Big Data | 2 | 24 |
| IFC | IFCT133PO | Zibersegurtasuna | 2 | 25 |
| IFC | IFCT135PO | Zibersegurtasuna erabiltzaileentzat | 2 | 10 |
| IFC | IFCT136PO | Community Manager | 2 | 30 |
| IFC | IFCT137PO | Nola kokatu web-orriak arrakastaz | 2 | 15 |
| IFC | IFCT139 | SAP S4HANA erabiltzaile-mailako materialen kudeaketa | 2 | 40 |
| IFC | IFCT139PO | Exceleko makroen diseinua | 2 | 20 |
| IFC | IFCT140PO | Docker OPS | 2 | 20 |
| IFC | IFCT141 | SAP S4HANA salmenten kudeaketa erabiltzaile-maila | 2 | 40 |
| IFC | IFCT142PO | ITIL oinarriak | 2 | 20 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IFC | IFCT143 | Ingeniaritza soziala, phishing eta web hacking-a | 2 | 20 |
| IFC | IFCT143PO | Ziberrarriskuen kudeaketa | 2 | 20 |
| IFC | IFCT144 | Ziberinteligentzia zibersegurtasunaren arloan | 2 | 20 |
| IFC | IFCT144PO | Proiektuen kudeaketa Openproject baliatuta | 2 | 10 |
| IFC | IFCT145PO | PMP proiektuen kudeaketa | 2 | 35 |
| IFC | IFCT148PO | Kokapen estrategikoa | 2 | 10 |
| IFC | IFCT149PO | Merkataritza elektronikoaren arloko segurtasuna | 2 | 20 |
| IFC | IFCT152PO | Satelite bidezko transmisio- eta harrera-ekipo eramangarriak baliatzea | 2 | 30 |
| IFC | IFCT157PO | AutoCAD Map 3D - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| IFC | IFCT158PO | Microstation V8i - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| IFC | IFCT159 | Big Data-ren eta IA-ren hastapenak | 3 | 40 |
| IFC | IFCT159PO | Infoarkitektura 3D, 3DS Max erabiliz - Erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| IFC | IFCT160 | Enpresa-ingurunean informazio-sareen eta sistemen babesa bermatzeko segurtasun-jarraibideak | 3 | 20 |
| IFC | IFCT160PO | IOT (gauzen internet) eta sistema ziberfisikoak 4.0 industrian | 2 | 40 |
| IFC | IFCT162PO | 4.0 industriako simulazioa eta modelatzea | 2 | 40 |
| IFC | IFCT171PO | Data Engineering on GCP | 2 | 28 |
| IFC | IFCT187PO | Wordpress sektore grafikoan | 2 | 30 |
| IFC | IFCT73 | Denok egiten dugu informazio digitala eskuragarria | 2 | 40 |
| IFC | IFCT81 | DBEDBLO – ikt-etako profesionalentzako datuak babesteko araudia | 3 | 25 |
| IFC | IFCT82 | SAP-MM modulua, erabiltzaile-mailako materialen kudeaketa | 2 | 40 |
| IFC | IFCT83 | SAP-SD modulua, salmentak eta banaketa-erabiltzaile maila | 2 | 40 |
| IFC | IFCT87 | 3D programazio eta inprimaketarako hastapenak | 1 | 30 |
| IFC | IFCT88 | Zure 3D inprimagailua muntatu eta konfiguratu | 1 | 30 |
| IFC | IFCT90 | X.0 erronkak: digitalizaziotik eratorritako erronkak | 4 | 40 |
| IFC | IFCT92 | Hiru dimentsioko diseinu organikoa 3D inprimaketa egiteko | 2 | 30 |
| IFC | IFCT93 | Hiru dimentsioko diseinu parametrikoa 3D inprimaketa egiteko | 2 | 30 |
| IFC | IFCT94 | Linux Red Hat- RHCSA sistemen administrazioa | 3 | 40 |
| IFC | IFCT95 | Cloud zerbitzuak administratzea Saleforce | 3 | 40 |
| IFC | IFCT96 | Administratzaileentzako Devops - Ipic-Ot: devops tools engineer | 3 | 40 |
| IFC | IFCT97 | Cloud Email  & Journey Builder Salesforce marketineko espezialista | 3 | 40 |
| IFC | IFCT98 | 3D inprimaketaren fabrikazio gehigarria | 3 | 30 |
| IMA | IMAI030PO | Domotika | 2 | 40 |

| Lanbide-arloa | Kodea | Izena | Maila | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| IMS | IMST003PO | Argazkigintza digitala (oinarrizkoa) | 2 | 40 |
| IMS | IMST005PO | Argazkigintza digitala (erdi-maila) | 2 | 40 |
| IMS | IMST006PO | Argazkigintza digitaleko teknika sortzaile aurreratuak | 2 | 40 |
| IMS | IMST008PO | Argazkigintza digitalaren postprodukzio profesionala | 2 | 40 |
| IMS | IMST01 | Lan-fluxua Lightroom CC/Classic erabiliz (aurreratua) | 3 | 30 |
| IMS | IMST07 | Argazki digitala eta enpresa | 1 | 20 |
| IMS | IMSV019PO | Iraultza digitala zinemagintza-emanaldietan: erronkak eta aukerak | 2 | 10 |
| IMS | IMSV036PO | Ikus-entzunezko teknologia aurreratuen bidez hartzea eta editatzea: 4K eta Ultra HD | 2 | 40 |
| SEA | SEAG063PO | Hondakinen ingurumen-datuen izapidetze elektronikoa | 2 | 30 |
| SSC | SSCE055PO | Egunkari digitala eskolan | 2 | 30 |
| SSC | SSCE099PO | Arbel digitala irakaskuntzan | 2 | 30 |
| SSC | SSCE102PO | IKTak irakaskuntzan | 2 | 40 |
| SSC | SSCE109PO | Ikus-entzunezko bitartekoak irakaskuntzan | 2 | 30 |
| SSC | SSCE148PO | Arbel digitalak (aurreratua) | 2 | 30 |
| SSC | SSCE153PO | Sare sozialak: dinamizaziorako tresna | 2 | 30 |
| SSC | SSCE22 | Tutoretza teleprestakuntzan | 2 | 25 |
| SSC | SSCE23 | LMS Moodle plataformen administrazioa eta kudeaketa | 3 | 30 |
| SSC | SSCE24 | Teknologia elkarreragile berriak ikasgelan | 3 | 25 |
| SSC | SSCE34 | IKT-ak prestakuntzan aplikatzea | 3 | 30 |
| SSC | SSCG13 | Nahasmendu kognitiboak dituzten adinekoei aplikatutako teknologia berriak | 2 | 40 |
| SSC | SSCG14 | Komunikazio handigarria eta alternatiboa, piktogrametan oinarritua | 2 | 40 |
| TMV | TMVI033PO | Takografo digitala | 2 | 30 |
| TMV | TMVI039PO | GPSaren erabilera eta maneiua | 2 | 20 |